

- Entzutekuak: Kale-dantza Eguna, txistua indartzeko ekimena
- Zer berri: Xabier Gallastegi txirrindularia jubeni mailan lehiatzen hasiko da

soraluzeko
hamabostekaria **260.** alea
2012ko otsailaren 24ean

@ pii - pilean



SORATOSTIAK 2012
Koloreen eztanda beroa





ARITZ ARIZAGA



EGOITZ UNAMUNO

Hau ez dok Islandia

Leup, Egoitz!

Zelan gaozik? Ondo espero juat. Aratustiak ondo pasau al hittuan? Jende kantidadia baheuan behintzat, eta ez tok gutxi!

Eztakit noiztik etorriko ote dan gure inguruetan mozorrotzeko ohittura hori, ezta nundik bez, baina

herrixari poztasuna emoten dotsen dantza eta kantuz betetzen dittu kale bazterrak. Hori politta dok, gorde biharrekua. Azken egunotan egunkarixa irakurtzen jarri eta kontu berdinak gora eta behe-ra, bati dantzarako eta kanturako gogua kentzeko modukuak diranak. Lan kontuak dirala eta, batetik lan gabe jende asko daguala, bestetik “reforma laboral” deiturikua... Zertarako balio jok lanian jardutiak? Gutxinaka-gutxinaka ezertarako etxok balixoko. Leengo jubilaziño edadia haunditu eben, oin jendia kale gorrixan lagatzia errezagua izango dala irakurtzen juat... Azkenerako bizitzeko lan eittetik, lanerako bizi biharko gaittuk.

Beste alde batetik, beren etxietatik botatzen dittuzten familien kontu latza jaok. Pertsoniak lana galdu eta etxia ezin bajok ordaindu, laguntzaren bat egon biharko zuan kalera bizitzera juan ez daittezen. Gaiñera entzun juat, etxia kentziakin bankua ez dala konformatzen, eta hilero-hilero pagatu biharrekuakin jarraitzen dabela etxe gabeko familixa horrek. Holako zortzi gertatzen eittuk egunero Euskal Herrixan.

Holakuekin jarraitu ezkeru hau ez zuan sekula amaittuko. Eskerrak gure arbasuen ohittura batzuk behintzat gordetzen dittugun, eta hola kanturako eta dantzarako eta ondo pasatzeko egun batzuk badaukauzen. Gure belaunaldi honek, egixa esan, ohittura politt gutxi lagako dotxe gure ondorengueri.

“

“Azkenerako bizitzeko lan eittetik, lanerako bizi biharko gaittuk”

Aritz Arizaga

”

“Lana sobra daok barren, dirua falta dok hemen, dirua”

Egoitz Unamuno

Kaixo Aritz,

Puntu asko ipini dostazik bertso bakar-rako eh? Habaneran edo egin biharko juat horrek danok erantzuteko.

Soratustietan edarki, bai egunez eta bai gabez.

Guraso gaztiak zapatu eguerdixan bazkarixak egitten hasi diranetik beste martxa bat igartzen dok. Baina aitortu bihar dostat aurten Tolosara kuku bat egitteko tentaziñua euki dotela. Azkenian ez nok juan. Diru gitxi jakat eta!

Langabezixan? Lana sobra daok barren, dirua falta dok hemen, dirua. Hala ta be, esango neukek tabernan txikitua pagatzeko beste daguan artian ez dala argi gorririk piztuko. Itxura txarra emoten jok korbatadunen kontra eta ez daukanan alde egittiak. Inok etxok

nahi ez daukanakin baina laster pila galanta egin bihar dok hemen. Hau ez dok Islandia txo!

Munduan zihar gerrak daren tokixan dabilen kazetari bati entzun najotsan esaten barreguria emoten dotsala Europako krisixak. Neri be bai. Hemen daguan aberastasun pittin bat banatuta danok edarki biziko gindukezik ba eh... baina dana geuretako nahi juau eta azkenian horretxek galduko gaittik, aldamenekua barik ez gaittuk ezer eta.

Baina gora bihotzak, heldu eskutik elkarri eta aurrera. Oindio auzolana berreskuratu bihar juau berriro. Horixe dok hemen ondo bizitzeko modu

bakarra, elkarri laguntzia. Hori dok mantendu eta indartu biharreko ohitturia. Ez daok besterik, zaharrak berri.

Goguan hartzeko

“Ezin da pobrezia kontrolatu aberastasuna kontrolatzen ez bada”

Janire Saenz de Buruaga, Zero Pobrezia.



GUTUNAK

**Iñakiri
azken agurra**

Iñaki lagun,
 Honek izango dira seguru, nere bizitzan iñoiz idatzi ditudan hitzik sakonenak eta duda barik gogorrenak, barruak astintzen dostazenenak.
 Zure hutsak ostian laga daben samiña izugarrixa izan da eta batzuen erlojuak ointxe hasten dira pixkanaka-pixkanaka martxan, beste batzuondako aldiz gauzia luzarorako juango da... ez da erreza...
 Hitz honek zeure omenaldixan esatia gustatuko jatan, baina egixa esan, malkuak eta negarra izan ziran nere protagonista bakarrak... ez, gizurraaaa...
 Lagunak, lagun asko, benetako lagunak. Eta ikus-entzutekua, zoragarrixa. Ikaragarri gustatuko jatzula seguru nao.
 Badira jada, zure modura be denboraz aurretik laga gaittuen beste hainbat herriko gazte... Txipi!! Egu-

nero goguan zaittut!! Aupa Alex!!!... beste Gabola-tseko seme bat, denporaz kanpo agurtu biharra, bizitzari ondiok asko emoteko zeukenian....

Malko artian esaten dotsut/dotsuet lagunak, ez zaittuedala iñoiz! Alzheimerrik sakonenian be ahaztuko... ikastolako tira-birak, etxepeko jua-entorri-xak, errekan gora-beherakuak... guzti horrek, nere sakon-sakonian gordeta ditudat eta iñork ez dostazelako kenduko, ez horixe!!

Beste barik, Iñaki, Txipi, Alex, Idoia... bestaldian gozamenian zabizien esperantzaz, politta izango zalako, nik uste dot lizentzia hartu ahal dotela, danon partez esateko hau ez dala agur bat, gero arte bat baino ez.

Animo lagunak!!!

Txuster

Eizu zuk zeuk!

Kontzertu simple baten alternatiba moduan pentsatu genduan egunari zentzu bat emotia, zuk zeuk egizu (d.i.y.) zentzuarena. Gauzak gure kabuz egitea sistemak bereganatu nahi duen ideia da: aisialdia, pentsatzea, gure umeak hezitzea... dena. Eizu zuk zeuk Eguna gauzak egiteko eta gauzak egiten ikasteko izango da, animatu domekan eta parte hartu!

Egitaraua:

14:00etan bazkaria

15:30ean bideoa (erreziklatutako materialarekin bere kabuz funtzionatzen duen etxearen eraikuntza)

16:30ean serigrafia tailerra (ekarri nahi duzun erro-pak eta zuk zeuk serigrafiatu!)

18:00etan kontzertua: Mordor Crew eta Crusten Onie

Soraluzeko gazteria

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Oier Ariznabarreta
Sutonduan bueltaka

Pasatuko ziran honezkero pare bat hilabete sutonduan batu ginanetik, bertan batu ginanok goiz edarra pasatu genduala esan biharrik ez dago, nahiz eta momentu horrek igaro ostian argi ikusi genduan euskerian egoeria ez daguala bere onenenian.

Ordutik, gainera, gauzak ez dot uste asko aldatuko ziranik, euskaraz bizitzia nahi dabenak euskaraz egingo dabelako eta alderantziz. Horrek zera esan nahi dau, denbora hortan euskeraz egin dabenak bere kontzientziagaittik egin dabela, zerbait aldatzekotan onerako ez dalako izan, zoritxarrez. Denbora horretan, hainbat hizkuntza galdu dirala jakinda, guban kontzientzia hori piztia biharrezkua da, gure artian euskaraz bizitzeko erosotasunak sortuz eta egunerokuan guria dan horri indarrez helduz.

Bestalde, argi laga biharra dago oin artekuan erantzule nagusixak gu geu garala, nahiz eta iparraldian eta hegoaldian daren herrialdietako komunikabideiek ez doskuen lan hori errazten eta beraien hizkuntzak gurian aldi estetikoki osatuago daren. Baina kanpotik oztupuak bakarrik darella ikusitta, geuk ez badogu ezer egitten, zeinek egingo dau? Ez deigun laga ba su edar hori emendatzen!

(((ENTZUTEKUAK)))

Kale-dantza Eguna, txistua eta dantza uztartzeko aitzakia

Kaleko txistularitza indartu eta herri osoa dantzan jartzeko asmoz antolatu dute herriko txistulari eta dantzariak "Kale-dantza" eguna, matxoaren 24-rako. Zitara herriko 50 txistulari inguru daude gonbidatuta eta Urratseko dantzariak oinak lehertu arte girotuko dute jaia.

Kale-dantza Egunakin ze da lortu nahi dozuena?

Azken urtietan txistuak kalia presentzia galdu dau eta egun seinalatueta bakarrik etarutzen dogu kalera. Martxuan 24a herriko txistulari eta dantzarixak batzeko eguna izango da, Soraluze dantzan jartzeko eguna. Txistuak daukan indarra herritarren artian kutsatzeko asmua daukagu. Musika eskolak ez dittu txistu eskolak emoten eta ondo pasatuz gaztetxuenen artian zaletasuna haunditza da gure erronkia.

Ze egitarau antolatu dozue horretarako?

Goizeko 10etan Plaza Zaharrian batu eta txistularixen kalejiria egingo dogu Mese-deetako Amaren Egoitzaraino. Bertan, dantzarixekin batera, fandango eta arin-arina dantzatu eta herrira jaitsiko gara, kaliak girotzera. 11:30ean buruhaundixen kalejiria izango da eta 12etan salda eta txorizua jateko tartia be hartuko dogu. Indarrak batuta, dantzarixak eta dantzan egin nahi daben herritarrekin batera kalejiran urtengo dogu, txistu doinua eta dantza herrikoiak tar-tekatuz. 15etan Allegron baz-



Antolakuntzan ari direnetako batzuk.

kaldu eta 18:30ean hasiko dan txistu-dantza-poteo herrikoiakin bukatuko dogu eguna.

Txistuaren aldeko aldarria egin nahi dozue orduan.

Urtiak aurrera egin ahala txistuan kale presentzia gutxitzen jua da, eskolak desagertu arte. Egun seinalatu batzutan mantendu da tradizina, Santa Zeziliako edo Santa Agedan esaterako, baina batzuntzat instrumentu serixua da eta horrekin apurtzia nahi dogu.

Ze emon dotsue zeuri txistuak?

Juerga mordua eta jai-giro ugari! Herriko bizitza musikaleko parte sentiarazten zaittu domeka goizian kalejiran txistua jotiak. Musika bidez bazterrak alaitzia bizipoza emoten dau!

Animatu herritarrek Kale-dantza Egunian parte hartzera!

Haur, gazte zein heldu batu eta danok alkarrekin egun pasa zoragarria egingo dogu, barre artian, dantzan eta kantuan!

Ondo pasatuz gaztetxuenen artian txistuarekiko zaletasuna haunditza da gure erronka!

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

H.NOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Harreman eredu berriak landu nahi dituzte matxoaren 8an

Emakumeen eskubideak zeintzuk diren ez ahazteko eta honek ozen aldarrikatzeke data seinalatua du egutegiak: martxoaren 8a. Soraluzen, ohiko elkarretara-

tzeaz gain, martxoaren 7tik 30era bitartean luzatuko da Udaleko Parekidetasun Batzordeak, Emakumeen Topaguneak eta Pil-pilean Euskara Elkarteak emakumeen eskubideak defendatzearen harira antolatu duten egitaraua. Ekin-tzokin eguneroko bizimoduan oso errotuak dauden emakumeen eta gizonezkoen arteko jarrera ezberdinak azaleratu nahi dituzte. Bestetik emakumeei egungo gizartearen behar duten lekua aldarrikatzeke jarrera estrategiak eskaini nahi dizkiete, bai indibidualki eta baita taldean ere. Hausnarketa bultzatzeko ekimenak izango dira, parekidetasunean oinarrituta, harreman egitura berriak eraikitzeke helburua dutenak.



Parekidetasuna bultzatzeko herritarrek eskegitako aldarriak.

Emakumeen lidergoa sustatzeko ikastaroa

"Adimen emozionala genero ikuspegitik" izenburupean, emakumeen lidergoa sustatzeko ikastaroa egingo da herrian. Genero eta sexuaren inguruko oinarrituko kontzeptuak landuko dituzte bertan. Saioak otsailaren 27an, martxoaren 5ean eta 12an, izango dira, 18.30etik 20.30era, kiroldegiko erausketa gelan. Izena emateko: ealonso@debegesa.com helbidean edo 943 82 01 10 telefonoan.

Ikasgaiak: 

804 zenbakia saritu du AAMK

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak "Preso bat, egunkari bat" lemapean saldatuko errifek badute zenbaki saritua, 804a. Irabazleak bi lagunentzako Txurruka jatetxean 100 euroko menuaz gozatzeko aukera izango du.

Udalak bigarren auzo bilera egingo du

Udal Gobernu Taldeak bigarren auzo bilera egingo du hilaren 28an, 18:30ean, udaletxeko Saio Aretoan. Gobolats eta Ezozki bideko bizilagunak daude zitara gonbidatuta. Besteak beste, aipatutako kaleetako bizilagunek dituzten kezkek eta nahiak jasoko dituzte.

Jubilatueta Batzar Orokorra

Itxaropena Elkarteko kideek juntako kide berriak aukeratuko dituzte hilaren 29an, eguaztena, arratsaldeko 17:00etan egingo duten Urteko Batzar Orokorrean. 2011. urteko balantze ekonomikoa eta bazkide mugimenduak ere landuko dituzte besteak beste.



Martxoak 7, eguaztena

"Eguneroko jarduerarako kit-a", emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun egoerak begibistaratzeko ekintza. 19:00etan, udaletxeko lehenengo solairuan.

Martxoak 8, eguena

18:00etan herritarren artean pankarta egiteko topaketa. 19:00etan elkarretaratzea Plaza Barrixan eta 19:30ean "pintxo-pote-feminista" herriko tabernetan.

Martxoak 9, barixakua

"Emoziotegia", Ixabel Millet ipuin kontalariaren ipuinak, helduentzat. 22:30ean Zinean.

Martxoak 11, domeka

Haurrentzako zinea, "Hirukiak: Pirata Andreak, Troia-ko Elena, Oliver Twist". 17:00etan Zinean.

Martxoak 16, barixakua

Antzerki emanaldia "Como como como me descoco poco" Quemadura teatroren eskutik. 22:15ean Zinean.

Martxoak 30, barixakua

Helduentzako bideoforuma, "Las chicas del calendario", 22:15ean Zinean.

Esker gozo-gozoak

Plaentxi Ikastetxean eguenean hasizirenaratusteko ospatzen. Orain artean egin moduan, Uzin ahiztak arduratu ziren umeentzako txokolatea egiteaz. Horregatik, ikastetxeko guraso eta umeek horrenbeste urtean halako txokolate gozoa egitea eskertu nahi diete. Eskerririk asko!!!





SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Senide eta lagunen agur beroa Iñaki Ruizi

Joan den otsailaren 11n hil zen Iñaki Ruiz Arana. Soum de Leviste Pirinio frantseseko mendia igotzen ziharduela, 200-300 metroko amildegian behera erori zen. Istripuak oso larri laga zuen. Berarekin zeuden bi lagunek eman zioten abisua Pierrefitteko erreskate taldeari, arratsaldeko 14.00etan. Oso egoera larrian heldu zen Tarbe-ko ospitalera eta bertan zendu zen.

Otsailaren 14an azken agurra eman zioten senide, lagun eta herritarrek. Txalaparta hotsen gainean, lagunek piolet bana eta krabelinak laga zituzten, bere bi argazki, ikurrina eta Mendi Taldeko banderak jantzitako eszenatokian. Aurrekuaren ostean, hitz hunkigarriak izan zituzten berarentzat; eta berak horren gogoko zuen Ruper Ordorikaren "Ene begiek" kantua eskaini zioten, kitarraz lagunduta.

Mendiari lotutako ibilbidea

Iñaki Ruiz Arana 1974. urtean jaio zen Soraluzen. Bere afizio nagusia mendia izan zuen eta bereziki eskalada. Denbora libre horretan ematea gustatzen zitzaion, asteburu, aste santu, gabonetan edo udako oporretan eskalatu egiten zuen. Araotzeko haitzetan ibili ohi zen sarri, lagunek "bertako seme" baten moduan ikusten zuten.

Pascual Txurruka enpresan hamar urtetik gora egin zituen beharreen. Onintza eta Aratz jaiotzearekin batera, beste erritmo batean aritu zen, mendiko lasterketak eta asfaltokoak, maratoiak eta maratoi erdiak korritzen hasi zen. Ezin geldirik egon eta erronka guztie-

kin gozaten zuen. Irakurzaletasun handia zuen.

Mendiarekiko lotura haratago joan zen, 1991. urtean, beste kide batzuekin batera (Jagoba Zubiaurre eta Jon Elizbururekin) Soraluzeko Mendi Taldeko zuzendaritzaren ardura hartu zuenean.

Hamasei bat urte egin zituzten zuzendaritzan, eta hainbat ekintza bultzatu: ikastolako umeen irteerak, elurretara bidaiak, Piriniora txangoak uda partean, mendi astea... Leziako haitzetan ere bide batzuk zabaldu zituen pareta eskaladarako egokitzeko.

Berba ematen zuenean bete egiten zuen horietakoa zela gogoratzen dute lagunek, kalerik egiten ez zuena, "metikuloso", lagun handia, esanekoa. Bere ekintzailetasuna eta erronka berriak betetzeko grina hori eredu izango da herrian zein goi mendietan.



Omenaldi bero eta jendetsua Iñaki Ruizi.

Javier Alonso Zelaleta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
 GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34





Soratost





Carnival 2012



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Espainiako Gobernuak lan erreforma berria ezarriko du langabezia jaitsi eta merkatuek "malgutasuna" lortze aldera. Sindikatuek salatu dute erreformak langileen eskubideak errotik urratzen dituela eta besteak beste, enpresek salmentak jaisteagatik kaleratu ahal izango dute, baita galerarik gabe ere; errezagoa, azkarragoa eta merkeagoa izango da kaleratzea, "enplegua sortzeko".

Onurak ala kaltiak ekarriko ditu lan erreformak?

RESURRECCION GALLASTEGI



Langilian fabore ez doia behintzat, beti kontratan. Daukanari kenduko balotsakie edo politikuak gutxiago kobratuko balebe... Oin indarra egin bihar dogu, kalera urten eta entzun eta ikusi gaitzaten.

VANESA CAMISON



Guizorratzera datoz, kaleratzeko morderua eta behin-behineko kontratuak sinatuko dira. Ezingo dogu planik egin, ezer egonkorrik eukiko ez dogulako. Gure gurasuak lortutako eskubide danak urtebetian deuseztatuko ditue. Enpresarixuendako erreformia da, ez biharginena.

ALBERTO GOMEZ



Nahiko argi zeguan holako zeoze etorriko zala. Eskumia beti egon da enpresarixuekin eta beraz ez dakit jendia zetaz harritzen dan! Sindikatuak berri, bakoitza bere aldetik. Daukaguna merezi dogu.

PETRI ROLO



Ezjata bape ondo irizten. Emoten dabena da enpresarixuak gu zela izorratu pentsatzen dabizela eta eurak berriz, beren burua salbatzen. Langiliak alkar-tu egin bihar dia honen kontra indarra egitteko.

Eman zure iritzia sarean



KM
Desing
Diseinua eta Formena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

P **PASCUAL CHURRUCÁ, S.A.**
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06
20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

JUAN MARI
ARRAINDEGIA
943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERRIK EZKO PLAINTXITARRAKI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Asteburu betea Gaztetxean

Gaur hasi eta domekara arte luzatuko dute kultur ekitaldien zerrenda Gaztetxeako asanbladako kideek.

Gaur, 20:30etik aurrera:

Tripa-festa afari begetarianoak.

Bihar, hilak 25:

22:30etik aurrera, Marylin Rambo eta Norman taldeen emanaldia. Sarrera: 3 euro.

Domekan, hilak 26:

"Egin zuk zeuk" eguna! Autogestioa bertatik bertara sentitu nahi dutenentzat antolatutako egitaraua.

14:00etan erreziklatutako janariak prestatutako bazkaria.

15:30ean "El guerrero de las basuras" dokumentalaren emanaldia.

16:30ean serigrafia tailerraren.

18:00etan "Mordor Crew" eta "Crusten Unie" talde madrildar eta holandarra taulagainean arituko dira. Sarrera doakoa.

Kultur ekitaldien agenda**Martxoaren 1etik 30era:****IDAZLAN LEHIAKETA 2012**

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Oinarriak ikastetxean kontsulta daitezke.

Ant: Udaleko Euskara Batzordea

Martxoak 7, eguztena:

"Eguneroko jarduerarako kit-a" EKIMENA. Generoen arteko desberdintasun egoerak begibistatzeko ekintza. 19:00etan, udaletxeko lehen solairuan.

Ant: Udaleko Parekidetasun Batzordea

Martxoak 8, eguna:**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

18:00etan pankarta egiteko topaketa. 19:00etan Kontzentrazioa P. Barrixan. 19:30ean "pintxo-pote feminista".

Ant: Udaleko Parekidetasun Batzordea

Martxoak 9, barixakua:

IPUIN KONTALARIA HELDUENTZAT "Emoziotegia" Ixabel Millet ipuin kontalariaren eskutik. 22:30ean Zinean.

Ant: Pil-pilean Euskara Elkarteak

Herriko errealzaleek Mikel de la Cruz omenduko dute

Martxoaren 10ean, zapatua, Mbederatzigarren urteurren festa ospatuko dute Txuri-urdin Elkarteko lagunek. Haur, gazte eta helduei zuzendutako egitaraua izango da antolatutakoa eta tartean, ohiko talde argazkia atera aurretik, iazko udan hil zen Iñaki de la Cruz elkarteko kidea zena omenduko dute. Bestalde, errealzaleen Batzar Orokorra martxoaren 15ean izango dela jakinarazi dute, 19:30ean Txoko kafetegian.

11etan: salda txorizo eta ardo banaketa Plaza Zaharrean.

12-14etara eta **16-19etara:** puzgariak umeentzat Plaza Zaharrean eta Gorriti eta bere abereak, Plaza Barrixan.

12:30ean: Buruhandiak herriko txikienentzat.

13etan: Mikel de la Cruz omenaldia eta jarraian, talde argazkia.

13:15ean: Txaranga-poteoa.

14:30ean: Bazkaria, Txurruka jattetxean.



Iazko urtarrilean Errealak Ezozin entrenatu zuenean.

* **Oharra:** Eguraldi txarra eginez gero ekitaldi denak goiko frontoian egingo dira.

Mingailuzeko finala jokatuta

Atxolin G.E. antolatutako Mingailuzeko lehiaketa bukaerara heldu da.

L.H.ko 1. mailatik 6. mailara arteko ikasleek hartu dute parte eta Kukumixoko begiraleek saio denak girotu dituzte. Hauek izan dira sariak jaso dituzten irabazleak: Ibai Rodriguez eta Ekain Larrañaga, June Eguren eta Miren Alonso eta Iker Urkiri. Zorionak denei!



Iturria: Itziar Agirre

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Xabier Gallastegi: "Txirrindulari profesionala izatia da nere ametsa"

Etxetik jaso du 17 urteko gazte honek txirrindularitzarekiko zaletasuna. Gaztetatik hasi zen lehiatzen Bergarako Lokatza taldean eta ilusioz helduko dio 4. urteari, estreinekoz jubencil mailan. Aurreko zapatuan egin zuten talde aurkezpena Bergaran.

Pozik Lokatza taldian?

Talde ona da! Aurretik bi urtez fultbolian jardun ostian, baloian munduak asetu ez eta 13 urtekin Bergarako taldian izena emotia pentsatu neban. Aurten jubentzetan estreinatuko banaiz be datorren urtiari begira nago, gogoz lan egittia tokatzen jata!

Afizionatu mailia gogorra da?

23 urtetik beheragoko txirrindulariak lehiatzen dira bertan baina adin tarte ezberdinak baten dittu. Gipuzkoa osuan hiru edo lau talde dare bakarrik eta

bertan lehiatzea nahi dogunak asko gara! Aukeraketa bidez egitten dittue fitxak, horregaittik aurten burukatu biharko dogu datorren urteko kategorixia.

Entrenamendu gogorak zain daukazue orduan!

Neguan batez be! Astegunetan lau edo bost aldiz entrenatzen dogu gimnasixuan eta korrika egittera be urtetzen gara. Asteburuetan lau ordu emoten dittugu bizikleta gainian, pedaleri emon eta emon!

Zeintzuk dira kirol honek dittuan alde gazi-gozuak?

Neguko prestakuntzia oso gogorra da eta psikologikoki be gogor egotia exigitzen dau. Asko entrenatzen dogu eta nahi dozuna lortzen ez danian amorrua emoten dau. Baina helburua betetzian lortzen dan pozak gogor mantentzen laguntzen dau. Lagunak ez dittu askorik ikusten baina frogetan animatzen sentitzen dittu eta hori izugarria da! Familixakuak be beti-beti dare nerekin, lehertu arte animatzen!

Hurrengo frogia noiz?

Zapatuhonetan 16:00etan Osintxun. 85 kilometroko lasterketia izango da, 100 txirrindulari inguruk hartuko dogu parte.

Profesionaletara heltzeko asmorik?

Hori ametsa da neretzat, gogor borrokatu biharreko ametsa! Ekainian jokatu dan Gipuzkoako erlojupeko lasterketan parte hartzia da nere erronka nagusixa.



Xabier Gallastegi Lokatza taldeko jantziar.

Domeketan aisialdirako gune bilakatuko da kiroldegia

Martxoaren 4tik aurrera, domeka arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, kiroldegiko frontoia gaztetxoentzat aisialdirako gune bilakatuko du udalak. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzendutako egitasmoa da aipatutakoa. Txandakako sistema ezarri

nahi dute eta bi eskoletako ikasleei aukera zuzendu. Txikientzat gurasoekin aisialdia konpartitzeko aukerak eskaini nahi dituzte. DBHko ikasleen kasuan, beraiek aukeratutako ekintzak antolatuko dituzte, begiraleen laguntzaz. Sarrera doakoa izango da.

EMAITZAK

PELOTA

Xala – Laskurain	22
Gonzalez – Barriola	13
Xala – Laskurain	22
Aritz Lasa – Zubieta	18
Atxotegi – Aldape	22
Maia – Mindegia	6
Atxotegi – Altuna	22
Mendinueta – Castillo	16

FUTBOLA

Sora (Erreg Pref.) – Lagun Onak	0-3
Eibartarrak F.T. – Sora (Erreg.)	1-3
Sora (Jub.) – Hondarribia	4-2
Sora (Kad.) – Eibartarrak F.T.	2-3
Sora (BHI mutilak) – Mundaiz	7-5
Arizmendi K.E. – Sora (BHI neskak)	6-1
Sora (Erreg.) – Aretxabaleta C	4-3
Urnieta K.E. – Sora (Jub.)	1-1
Arrasate "B" – Sora (Kad.)	3-1
Usurbil F.T. – Sora (BHI mutilak)	3-0

AGENDA

PELOTA

Gaur, Euskal Herriko Pilota Ligako finalerdiak
Atxotegi – Aldape
Lopez de Aldai – Diez

Astelehena 27, 16:30ean Tolosan
Xala – Laskurain
Arretxe II – Begino

FUTBOLA

Zapatua 25, 15:30ean Mendibeltzen
Orioko F.T. – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 25, 15:30ean Ubitarten
Ontzerri F.T. – Sora (Erreg.)

Domeka 26, 16:30ean Arizkorretan
Idiazabal K.E. – Sora (Jub.)

Zapatua 25, 12:00etan Ibarra
Aretxabaleta K.E. UDA – Sora (Kad.)

Zapatua 25, 10:00etan Ezozin
Sora (BHI mutilak) – Zestoa K.B.

Zapatua 25, 10:00etan Ezozin
Sora (BHI neskak) – Urki C.D.

TXIRRINDULARITZA

Soraluze Saria 2012

Domekan, hilaren 26an.
Irteera: 9:45ean, Mandiolatik.
Helmuga: San Andres auzoa, 12:30ean.
Ibilbidea: Estaziño kalea, Eskoriatza, Mendaro, Angiozar, Asensio Goia, Bergara eta San Andres auzoa.
Oharra: Irteeran minutu bateko isiltasuna gordeko dute
Iñaki Ruizen omenez.



ZORION AGURRAK



Marina Gil
Otsailan 13an 9 urte!
Zorionak txapeladun!
Ondo pasatu eta muxu pila
familixian partez!



Alba Rico
Martxuan 3an 6 urte!
Zorionak poxpoliña eta
muxu haundi bat
etxeko danon partez!



Zorionak Ane!
Otsailan 27xan 13 urte!
Aupa neska! Jarraitu alai eta
maitekor! Patxo haundixak
etxekuen partez.



Zorionak Marga!
Otsailan 27xan urtebete
gehixago! Iaz bezain atsegin
eta maja izaten jarraitu!
Muxu haundixak!



Koldo Etzaniz
Otsailan 28xan 13 urte eder!
Zorionak, besarkada
haundi-haundi batekin!
Segi hola!! Etxekuak.



Borja Aristi Placencia
Otsailan 29xan, 32 urte!
Aurten bai, zoriaaak!
Muxu haundi bat,
danon partez!



Aitor Unamuno
Otsailaren 29xan 36 urte! Zure
urtebetetzia 4 urtian behin izan
arren, nik urtero emongotzut
patxo haundi bat. Irati.



Janire Muñoz Pellitero
Martxuan 8xan 4 urte!
Zorionak maizia!
Asko maite zaittugu!
Gurasoak!



Zorionak Unai!
Laztanak dira sendagai
onenak eta hartu mordoxka
bat gure partetik!!!



Alonso Sánchez eta Nora Larreategi
Otsailan 1ian eta 21ian, 67 eta 2 urte!
Zorionak eta patxo haundi bat,
etxeko guztixon partez!



Zorionak aitatzxo Dani, amama Ramo eta Oier!
Otsailan 4an, 15ian eta 21ian urtiak betetzen ditzuzelako,
patxo haundi-haundi bat!

hildakoak

IÑAKI RUIZ ARANA



LEHIAKETA

► Zein ageri
da argazki
honetan?

► **Saria: Iñarra harategian
30 euroko bonoa.**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Veronica Galarraga**

► **Iker Aldazabal**, EAJ alderdiko bo-
zeramailea da aurreko aleko argazki-
xan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.
Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko PII argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Jesus Artolazabal

EDURREZKO ARTELANA

Argazki hau 1981ko neguan etaratakua da. Orduan be sendo bota zeban edurra herrixan. Auzoko ume kuadrilia Estaziño kalia alkartu zan edurrezko panpin elegantia egitteko. Artelanak argazki bat merezi zeban!

Argazkixan:

Goixan: Amaia Aldazabal, Virginia Aldazabal, Irene Aristi eta Ane Aristi.


Behian: Ainhoa Artolazabal.



BENAN RODRIGUEZ

XII. URTEURRENA
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN
GOIAN BEGO

“Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
betirako nire bihotzean!”



Aupa Iñaki, luze berri hau
guretzat gogorregia
hortzak estutu, besoak luze
haitzari hartu neurria
zure animo, oihu ta txalo
Plaentxiko umoria
ezin ordaindu, nola ahaztu
zuk emandako guztia.

Mendixan gora, mendixan behera
gozatu guran bizia
eskalau ondo, korrikan asko
bihotzian familia
Araotzen ta Atxarten ere
entzuten hire barria
aurrera egin, hor uzten_tzuet
hurrengo soka luzia.

Jñaki Ruiz Arana
1974-2012



*Gure malkoak
eta zure irribarra nahañtu dira
eta herrian maitasuna ari du.
Zuganako maitasuna.*